

Esteka: <https://www.zinea.eus/2020/09/10/haizearen-egia-fikziozko-film-laburraren-estreinaldia-zumaian/>

'Haizearen egia' fikziozko film laburraren estreinaldia, Zumaian

By **Erredakzioa** | 10 iraila, 2020

Ekain Albiteren (Zumaia, 1999) film laburra estreinatuko dute gaur, irailak 10, Zumaiaiko Aita Mari aretoan. Maluta* Filmsek ekoitzi du, eta Zumaiaiko Udalaren, Zestoako Udalaren, Euskal Fondoaren, Darahli Elkartearen, Wadna Elkartearen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du.



Albite zinema-zuzendaritza ikasten ari da Bartzelonako ESCACen, eta lehen aldiz aritu da zuzendaritza profesionalean.

Tahar-en istorioa kontatu du: Saharako 20 urteko mutil gaztea da, eta Euskal Herrian bizi da. Haren familiak, ordea, Tindufeko errefuxiatuen eremuan bizitzen jarraitzen du. Egun batean, dei bat jasoko du bertatik: aita hilzorian dago. Saharar gaztea etxera itzuliko da eta, aitaren gorputza garbitzen duen bitartean (musulmanen usadioa), aurre egin beharko die iraganari, oroitzapenei eta kontraesanei. Lortuko al du bere bizitzako piezak dagokien lekuan jartzea? Gai izango al dira elkar ulertzeko? Eta elkarri barkamena eskatzeko?

“Zumaian, eta baita ere Zestoan zein inguruetan, beti izan dugun Sahararekiko elkartasun indarrari zor zaio film laburra. Hori izan zen film hau egitera bultzatu ninduen arrazoia”, azaldu zuten Albitek prentsaurrean egindako aurkezpen ekitaldian. Izan ere, gaztetan Sahara ezagutzeko aukera izan zuten Darahli Zumaiaiko herriko esker.

Hain zuzen, Darahli Elkartea bera da filmaren beste partaideetako bat. Katixa Garcia ordezkariak halako ekimenen beharra azpimarratu du agerraldian, Saharan bizi duten egoera azaleratzeko tresna gisa. Bertan izan zen ere Iñaki Ostolaza Zumaiaiko alkatea, eta eskerrak eman dizkio herri osoaren izenean hainbeste urtean herrian egin duen kontzientziario lanagatik eta martxan jarri dituzten proiektuengatik. “Herrien arteko elkartasunean sinisten dugu, eta bide horretan ezinbestekoak dira *Haizearen Egia* (2020) bezalako proiektuak”, esan zuten Albiteren filmari buruz.

Bi aldiz izan ziren Saharan filmaren grabaketarako, bertako zine eskolarekin elkarlanean. “Bertako aktoreekin eta teknikarekin egin dugu lan”, adierazi zuen Maluta* filmseko Ritxi Lizartza ekoizleak, “hori izan zen zuzendariari jarri genion baldintza bakarra”. “Ez genuen istorio paternalistik nahi, Europatik Afrikara begira eraikitako kontakizunik. Bertatik eta bertakoek kontaturiko istorio bat izatea izan da helburua”.

“Bidea ez da erraza izan, Tindufen bertan errodatzeak dakarren zailtasunaz gain, COVID-19 gaitzaren krisialdiak harrapatu gaituelako”, prozesuaren argi-itzalak gogora ekarri zuten aurkezpena egileek. Zumaiaiko Udala, Zestoako Udala, Euskal Fonda, Darahli Elkartea, Wadna Elkartea eta Eusko Jaurlaritza izan dituzte bidelagun.

Estreinaldia, Zumaian

Gaur, osteguna, estreinatuko dute lehen aldiz filma, Aita Mari zinean. 20:00etan hasiko da ekitaldia, eta aurkezpena, proiektzioa eta solasaldia hartuko ditu.

COVID-19 gaitzak behartutako segurtasun neurriak direla eta, aforoa mugatua izango da. Gelditzen diren gonbidapen apurrak cristina@malutafilms.eus helbidean egongo dira eskuragarri.

<https://vimeo.com/user29294945>